

Uztarria-Udala 2008-2011 Komunikazio hitzarmena

Azpeitian, 2008ko martxoaren 7an.

Elkartzen dira,

Alde batetik, Iñaki Errazkin Vitoria jauna, Azpeitiko Udaleko Alkate-Lehendakari gisa, Udalbatzak 2007ko ekainaren ...an hartutako akordioari jarraiki diharduena.

Bestaldetik, Laxaro Azkune Sudupe jauna, adinduna, NAN zenbakia 15875573-F; Azpeitiko biztanlea, Uztarria Kultur Koordinakundeko lehendakari baldintzetan parte hartzen du, zeregin honetarako ahalmendua baita.

Adierazten du.

1. Uztarriak, Azpeitiko informazioaz osatutako aldizkari bat argitaratzen du, 'Uztarria Azpeitiko herri aldizkaria' izenekoa, eta funtzio bera duen webgune bat ere badauka, 'www.uztarria.com'. Bestetik, Uztarriak 2008. urterako bestelako proiektuak ere baditu (liburuak). Hauek dira aldizkariaren ezaugarriak: doanekoa izatea (hala nahi duenarentzat), finantziazioa pribatua nagusiki eta publikoa dituen, eta herrigintzan oinarritua izatea. Webgunearen ezaugarriak: doanekoa izatea, finantziazioa pribatua eta nagusiki publikoa dituen, eta herrigintzan oinarritua izatea. Bestelako proiektuen ezaugarriak (liburuak, batik bat) finantziazioa pribatua eta publikoa izatea. Hiruren sorburua euskara eta kultur taldeetan dago. Herrigintzan aritze hori, abiapuntu ireki eta zabaletik bideratuko da aurrerantzean ere, alderdikerietan erori gabe.

2. Azpeitiko Udalak, aldizkaria, webgunea eta beste proiektuak herrirako onuragarriak izan daitezkeela uste du. Zentzu horretan, eta Uztarria elkarteak bide horretatik lan egiteko konpromisoa hartua duenez, Udalak talde honekin elkarlanean aritzeko borondatea adierazten du.

Honenbestez eta Udalbatza Osoak, 2008ko ----- hartutako akordioarekin bat, hitzarmen honen bidez aipatutako konpromisoa gauzatzera gatoz.

Klausulak.

Lehena. Aldizkaria, webgunea eta bestelako proiektuak autonomoak izango dira; hau da, edozein alderdi politikoren eraginpean izatea saihestuko da eta iritziz desberdinetako informazioari tratamendu bera emango zaio. Herriko informazio guztiek tartea izango dute aldizkarian eta webgunean, eta bi horietan eta bestelako proiektuetan inpartzialtasuna bereziki zainduko du.

Bigarrena. Herriko elkarte eta herritar orok parte hartu ahal izango du aldizkarian eta webgunean, bere iritzia emanez. Beste proiektuetan ere herriko elkarte eta herritar orok parte hartu ahal izango du, betiere lehen klausulan oinarritu ondoren, egileek haien ekarpena egoki ikusten badute.

Hirugarrena. Hilabetekaria izango da Uztarria aldizkaria, eta webgunean egunero sartu ahal izango dira albisteak.

Laugarrena. Aipatutako zabaltasun eta irekitasunaren bidetik, aldizkarian eta webgunean era guztietako edukiak eta gaiak aztertuko dira. Hala ere, aldizkarian eta webgunean —eta beste proiektuetan— zaindu egingo da pertsonaren errespetua edo norbaiti min eragin diezaiokeen informaziorik ez ematea.

Bosgarrena. Aldizkaria, webgunea, eta beste proiektuak euskara batuan idatziko dira. Aldizkaria, webgunea eta beste proiektuak, azpeitiar guztientzat sortutakoak izanik, hizkuntza eredu ere bihur daitezke irakurleentzat. Eta eredu izan daitezkeen aldetik, ahal den eredurik egokiena izaten saiatuko dira. Aldizkarian, webgunean eta beste proiektuetan argitaratuko den informazioak gutxieneko hizkuntza kalitatea ziurtatu behar du. Euskara zuzen, zehatz eta aberats eta ulerterraza izatea nahi da. Horretarako Uztarriak Azpeitiko Euskara Patronatuko Hizkuntza Aholkularitza Zerbitzuari laguntza eska diezaioke.

Seigarrena. Irudiar, dagokion garrantzia emango zaio aldizkarian, webgunean eta beste proiektuetan.

Zazpigarrena. Udala informazio iturri garrantzitsua da herriko bizitzan, eta aldizkariak eta webguneak Udala eta herritarren arteko zubi izan nahi dute. Hala, Udalak herritarrongan daukan garrantzia kontuan hartuta, udalbatzarrean hartzen diren erabakiak aldizkarian argitaratu ahal izango dira, tratamendu periodistiko profesionala emanez, baita Udaleko bestelako kontuak ere, eta webgunean ere sartu ahal izango dira udalbatzarreko erabakiak eta Udaleko beste kontuak albisteen atalean. Horretaz gain, Udalak argitaratutako produktuak (liburuak, batik bat) Uztarriari formatu digitalean emango dizkio, honek bere webean *Azpeitia* zerbitzu atalean jartzeko bertako informazioa.

Zortzigarrena. Iritziaren atalari dagokionez, edozein azpeitiarrek eskubidea eta aukera izango du nahi duen iritzia aldizkarian eta webgunean emateko.

Bederatzigarrena. Komunikazio hitzarmen honen bidez, Uztarriak eta Udalak Jarraipen Batzordea osatuko dute (2000tik dute). Udaletik, Kulturako ordezkari batek hartuko du parte. Jarraipen Batzordea urtean hainbat aldiz bilduko da, eta parte bakoitzak eskatu ahal izango du bilera egitea. Batzordearen egitekoa: diru kontuak ikustea, Uztarriak bere gai nagusiak azaltzea...

Hamargarrena. Uztarria aldizkaria, webgunea eta beste proiektuak aurrera eramateko baliabide materialei dagokienez, Udalak bere jabegoko gela bat utziko dio elkarte honi.

Hamaikagarrena. Uztarria elkarteak, komunikazio proiektu honetan, 2008. urterako 125.830 euroko aurrekontua dauka. Proiektuak bideragarriak izan daitezen, elkarteak erakunde publikoei (Azpeitiko Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari) diru laguntza eskatuko die. Azpeitiko Udalak Uztarriaren aldizkariari, webguneari eta beste proiektuei diru laguntza emateko asmoa adierazten du.

Azpeitiko Udalak Uztarria elkarteari, komunikazio proiektu honengatik, 2008. urterako guztira 32.400 euro emango dizkio. Ohiko diru laguntza moduan 30.000 euro emango dizkio eta gainontzeko diru laguntza aipatutako proiektua osagarriak

gauzatzen diren heinean emango zaio.

Hamabigarrena. 2009-2010-2011. urteko diru laguntzetarako hamaikagarren klausulako irizpide bera mantenduko da baina, hala ere, urte bukaeran bilera bat egingo da Udalaren eta Uztarriaren artean, hurrengo urteko egoera aztertzeko —aurrekontua eta izan daitezkeen gorabeherak—. Komunikazio proiektuan aldaketa nabarmenik ezean, hamaikagarren klausulako kopuruari urteko KPI gehituko zaio.

Hamahirugarrena. Uztarria elkarteak, epealdi bakoitzeko diru kontuen azalpena edo diru zuriketa egin beharko dio Azpeitiko Udalari, izan dituen gastuak justifikatuz gastu agiriaren fotokopiekin.

Hamalauugarrena. Diru laguntzen ordainketa bi epetan egingo da aldizkariaren eta webgunearen kasuan. Lehen ordainketa, Udaleko urteko aurrekontuak onartu eta diru ordainketen agindua gauza daitekeenean egingo da, eta bertan Uztarriaren kontuan aldizkariaren eta webgunearen diru laguntzaren erdia sartuko da. Bigarren ordainketa, uztailaren 1ean egingo da eta bertan diru laguntzaren beste erdia sartuko da.

Bestelako proiektuen kasuan, Udalak, bakoitzari dagokion diru laguntzaren ordainketa osoa Uztarriak proiektua argitaratu eta gehienez hiru hilabetera egingo du.

Diru ordainketa bakoitza egin baino lehenago, aurreko epealdiko jarduerako diru kontuen zuriketa azaldu beharko du Uztarria elkarteak. Era berean, izan dituen diru sarrerak ere azaldu egin beharko ditu.

Hamabosgarrena. Uztarria elkarteak ondorengo datuak azaldu beharko ditu diru laguntza jaso ahal izateko: elkarteari dagokion erregistroan inskripzio datuak, Identifikazio Fiskalaren Zenbakia, Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Eskatzailearen kontu korrante zenbaki baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria. Urte osorako programa eta aurrekontua.

Hamaseigarrena. Uztarria, herrian banatzen den aldizkaria izanik, aldizkariak milaka irakurle izanik, eta, beraz, Azpeitian hedapen handia izanik, Azpeitiko Udalak modu erregularrean bere iragarkiak sartu ahal izango ditu Uztarria aldizkarian, azpeitiarrek osagai informatibo horren bidez ere izan dezaten herritar guztien erakundearen asmoen-eta berri. Udalak bere eta udal erakundearen erabakien, promozioen, deialdien, kanpainen, aholkuen, festa-agurren edo dena delakoen berri eman ahal izango du Uztarria aldizkarian iragarkien bitartez. Unean-unean Uztarriako publizistarekin jarriko da harremanetan Udala, eta iragarkien ordainketa aldizkariko beste edozein iragarki bezala egingo da.

Webgunearen kasuan, berau Azpeitirako produktu informatiboa izanik, eta ikusirik teknologiaren hedapena zabalduz doala, Azpeitiko Udalak —betiere euskarri honen berezitasunak kontuan hartuta—, bere eta udal erakundearen iragarkiak (promozioak, festa-agurrak...) sartu ahal izango ditu www.uztarria.com-eko bannerrean, azpeitiarrek osagai informatibo horren bidez ere izan dezaten herritar guztien erakundearen asmoen-eta berri. Udalak iragarkia jarriko balu, unean-unean

Uztarriako publizistarekin jarriko litzateke harremanetan, eta iragarkien ordainketa aldizkariko beste edozein iragarki bezala egingo litzateke

Hamazazpigarrena. Uztarria Elkartek, liburu, CD, liburuxkak edo beste edozein euskarritako kultur produktuak argitaratzeko eta aldizkari eta webgune bezala aritzeko, behar dituen legezko betekizun guztiak beregan izan beharko ditu. Aldizkariaren kasuan, gutxienez mila ale argitaratu eta banatu beharko ditu, betiere azpeitiarren artean. Uztarria aldizkariak gutxienez orrialde kopuru hauek izan beharko ditu: 32 orrialde hilabetekaria izanez gero, eta 24 hamabostekaria izanez gero. Hilero kaleratuko du Uztarriak bere aldizkaria, —salbuespenak albuespen— irailean izan ezik (abuztuko oporrenegatik). Webgunearen kasuan, informazioa baldin badago, Uztarriak egunero sartuko ditu berriak-eta webgunean, —salbuespenak albuespen— asteburuetan, jai-egunetan eta oporretan (abuztuan) izan ezik.

Hemezortzigarrena. Uztarriak, aldizkariaren ale bakoitzean, webgunean eta beste proiektuetan (eta sor daitezkeenetan), Azpeitiko Udalaren diru laguntza jasotzen duela adieraziko du.

Hemeretzigarrena. Hitzarmen honen iraupena 2008ko abendura artekoa izango da. Bi aldeak horrela nahi izanez gero, urtez urteko luzapena emango diote. Luzapen hauek gehienez 2011. urteko ekitaldira artekoak izango dira (ekitaldi hau barne).

Hogeigarrena. Bi aldeetako norbaitek jasotako konpromisoak etengo balitu, hitzarmena bertan behera geldituko litzateke.

Eta bi aldeek adostasunaren seinale, hitzarmen hau sinatzen dute, bertan aipatzen diren leku eta egunean.

Azpeitian, 2008ko martxoaren 7n,

Iñaki Errazkin
Azpeitiko alkatea

Laxaro Azkune
Uztarriako lehendakaria